

OLERKIAK

Josu Baezen olerkiak

KUKUA ERE

Pozik dago
beste gutxitan ez bezala
bedatsa iristean,
erortzearen murkoa
gertatu ez zaiolako.

Mugimendu eszentrikoetan
zerbait eskertu nahian dabil,
bedatseak kitzikatu balu bezala.

Pozaren silueta
igeri mantsoetan,
ur gaineko itzalaren
arrasto nabigatzailea
bisitan dator.

Atsegin nostalgikoa.

SAGASTIA LORETAN

Galipoteko haur xaloa:
ez zaitu urduritzen
ezagutzen ez duzun
eremuaren bilakaerak.

Zuztarrik gabeko zure hori,
zure eremu,
besterik ez aintzat.

Antzua,
eta horri loturiko jolasetan
nahasi pozarren.

Antzua da zuztarra:
askatasun antzua.

Gizaki isila,
aho isila;
naturaren ahotsak hor darrai.

Galipoteko haur xaloa,
naturaren energiari
itsatsitako gizakia:
lur emankorren jainkoak
haserretzen hasi dira zurekin.

Aurten ere,
maduraren haragitik
itsaso zuri bat sortu da.

SUMMUN JUS

Summun jus, summa injuria (Zizeron: De Officiis 1, 10, 36)

Garunak lehenago
ehotako odol zaharrak,
bide bakarra ezagutu zuen
eta luzaroan iraun zezan
urrezko pulpitoa eraiki zuen.

Gainetan haizea dabil
eta urrezko pulpitoari
eginkizun soila
atxiki zaio orain ere.

Lurtar ondasunzalea,
pulpitoetatik hegaldi handientsuak,
paraje exotikoetan.

Ez du ahanzten
abaroan irauten duen
azienda premiatsua.
Berak beharra.

Munduari beha
urrezko pulpitoaren
ardura soiletan.

Isilik jarduten du mailuak,
egin beharreko tolesturak
bere horretara egokitzen.

Gero,
molde jakinaren petik
nola askatu!

Nola!
erraietan giltzaturiko korapiloa?

Isilkakoa da mailuaren hotsa
mihizatzeak gauzatzen.

*Gebiegizko justizia,
injuztizia nabaria.*